

1/2026 Irizpena, urtarrilaren 19koa: Foru-dekretuaren proiektua, zeinaren bidez arautzen baitira Nafarroako Foru Komunitateko toki-erakundeek emandako zerbitzuen benetako kostua kalkulatzeko betebeharra eta informazioa emateko epeak.

Eskatzailea: Lurralde Kohesiorako Departamentua

Txostengilea: Inés Olaizola Nogales

Interesa: partzuergoak eta haien izaera juridikoa

Foru-dekretu horren helburua da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legean (TAOL) eta Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko Legean (TAAIL) ezarritakoa betetzea, eta Nafarroak bere araudiaren arabera arlo horretan dituen eskumenen barnean onesten da (13/1982 Lege Organikoa, abuztuaren 10ekoa, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzkoa).

TAOLen 116.ter artikulua bete behar izateak justifikatzen du dekretua, toki-entitateek emandako zerbitzu publikoen benetako kostua kalkulatzera behartzen baitu. Bestalde, Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko Legearen bigarren xedapen gehigarria adierazten du Foru Komunitateak garatuko dituela kalkulu horren irizpideak. Gainera, kostu horien kalkuluari esker, baliabide publikoen erabileraren efizientzia eta eraginkortasuna aztertzen ahalko dira, eta erabakiak hartzen lagunduko du.

Irizpenean zalantzan jarritako alderdietako bat lotuta dago toki-entitateei atxikitako partzuergoen izaera juridikoarekin. Eta, zehazki, zalantzan jartzen da, haien izaera juridikoa dela eta, arauaren aplikazio-eremuan modu autonomoan sartzen ahal diren (proiektuaren 2.2 artikulua).

Irizpenean ondorioztatzen denez, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko Legea eta egungo jurisprudentzia kontuan hartuta, partzuergoak zuzenbide publikoko entitateak dira, nortasun juridiko propioa dutenak eta sektore publiko instituzionalaren parte direnak. Are gehiago, administrazio publikotzat ere hartzen dira, baina haien izaera ez da toki-entitate batena. Nafarroak aldaketa horretara egokitu zuen bere araudia, 4/2019 Foru Legearen bidez.

Beraz, nahiz eta partzuergoak tokiko sektore publiko instituzionalaren parte diren entitate instrumental gisa, ezin dira berez toki-entitatetzat hartu. Ondorioz, Kontseiluaren ustez, partzuergoek ematen dituzten zerbitzu

publikoen kostua, bai eta dekretuak eskatzen duen informazio-hornidura ere (6. artikulua), horiek atxikita dituzten toki-entitateen bidez kalkulatu behar da, eta ez modu independentean. Hori dela eta, uste du 2. artikuluaaren bigarren paragrafoa eta 6. artikuluaaren bigarren paragrafoa kendu behar direla.

Zerbitzuen sailkapenari dagokionez, Kontseiluak uste du «jarduerarik gabeko zerbitzuak» ez datozela bat arauaren helburuarekin; izan ere, helburua da «emandako zerbitzu publikoen» benetako kostua kalkulatzea, hau da, benetan ematen diren zerbitzuena. Helburua zerbitzu publikoak ematearen kostua baloratzea denez, eta ez tokiko kudeaketarena, modu abstraktuan, jarduerarik gabeko zerbitzu horiek kalkulutik kanpo utzi behar dira.

Ondorioz, Kontseiluak uste du dekretu-proiektuak bete egin behar dituela egindako oharrak, ordenamendu juridikoaren arabera izan dadin.